

Familia hori:

Idatzi honen bidez, zuen DBH 3. mailako ikasle-irakasleek egingo dugun irteerari buruzko informazioa eman nahi dizuegu. Aurten, Barriara (Araba) joango gara. Apirilaren 5etik 7ra joango gara, hau da, asteazkenetik ostiralera. Asteazkenean, goizeko 8:45ean irtengo gara ikastolatik, eta ostiralean 16:30 inguruan helduko gara, ikastolara bertara.

- Ekintza hauek egingo ditugu:
 - Otxandioko Hontza Extremen abentura zirkuitoa, arku tiroa eta orientinga.
 - Galarretako Azkarra gaztandegira bisita gidatua.
 - Inguru abentura taldearen gidaritzapean herri-kirolak eta gynkhana.
 - Gasteizko alde-zaharrera bisita eta katedralera bisita gidatua.
- Ikasleek zerrenda honetan agertzen diren gauzak eramatea komeni da:
 - Lehen eguneko bazkaria*
 - Motxila txiki bat (maletaz gain).
 - Lo-zakua.
 - Berokia eta zira edo txubaskeroa.
 - Kirolerako arropa erosoak, oinetako erosoak edo kirol-zapatilak.
 - Nezeserra eta toalla.
 - Dutxarako txankletak.
 - Aterki txiki bat.
 - Gizarte-segurantzako txartelaren kopia.
 - Botikaren bat hartzen ari denak eraman beharko du; kasu honetan, irakasleari jakinaraztea komeni da.
 - Eguzkiko krema (eguraldiaren arabera).

Egun hauetan ere, ikastolako araudiaren arabera jokatu dugu. Beraz, jarrera desegokirik edo bestelako gorabeherarik balego, ikastolako araudia aplikatuko litzateke.

- Mugikorra eta argazki kamera.
 - Ikasleek argazki-kamera eraman dezakete, baina beraiek izango dira ateratako argazkiei ematen dieten erabileraren arduradun.
 - Ez dugu debekatuko telefono mugikorra eramatea, baina irakasleok zehaztuko dugu noiz eta zertarako erabili ahal izango duten. Aparailuak denbora librean erabili ahal izango dituzte; ekintzak egiten ari garenean eta gauzez, oster, ez da onartuko telefono mugikorra erabiltzerik.
 - Ikasleak izango dira, kasu guztietan, eramaten dituzten aparailuen arduradun.
- **Oharra:** Norbaitek dieta bereziren bat edukiz gero jakinarazi diezaguzue, aterpetxean esan dezagun.
- ***Oharra:** Jantokian egunero geratzen direnek lehenengo egunerako jatekoa Ikastolan bertan jaso ahal izango dute, nahi izanez gero. Horretarako, mesedez, martxoaren 31rako jakin behar dugu aukera hau ze ikaslek baliatuko duen.
- **Ikasleren batek arrazoi bereziren batengatik etortzerik ez balu, jar zaitezte tutoreekin harremanetan, mesedez.**

Irteera honen kostua **80 eurokoa** da ikasleko, eta kuotaren bitartez kobratuko zaizue.

Martxoaren 30erako jakin behar dugu zenbat izango garen zehatz-mehatz, lekuak erreserbatzeko eta barne-antolaketa zehazteko.